Ibai-baso kantauriarrean dugu haltza, zumar hostozabala, lizarra, hurritza, astigarra, zume zuria, iratzea...

En el bosque fluvial cantábrico podemos encontrar alisos, olmos de montaña, fresnos, avellanos, arces, sauces blancos, helechos ribereños...

ESPEZIE INBADITZAILEA
Bisoi amerikarra
Visón americano
ESPECIE INVASORA

Txantxikua
Sapo partero

Bisoi europarra
Visón europeo

Lanprola
Lamprea

Kolaka
Sábalo

Makroornogabea
Macroinvertebrado

Amuarraina
Trucha
Izokina
Salmón
Makroornogabea
Macroinvertebrado
Loina
Madrilla

SARTUTAKO ESPEZIE
Banbua
Bambú
ESPECIE INTRODUCIDA
Igaraba
Nutria
Desman Piriniotarra
Desmán ibérico
Martin arrantzalea
Martin pescador
Burtaina
Burtaina
Ibai-karramarroa
Cangrejo de río

OZTOPORIK GABE, HOBE!
¡QUE CORRA EL AGUA!

ABIAPUNTUA
SITUACIÓN DE PARTIDA

Presak ibaian dituen ondorioak
Efectos de una presa en el río

1 Ibaiak ez du bere garraio lana egiten, hau da, ez ditu garraiatzen mantenugaiak, hareak, harriak eta bertzelako materialak. Sedimentuak metatzen dira.

El río no ejerce su labor de transportista de nutrientes, arenas, piedras y otros materiales. Los sedimentos se van acumulando.

2 Ibaiaren abiadura moteltzen da eta ur-xaflaren sakonera gero eta txikiagoa da; beraz, ura aiseago berotzen da. Urlasterrik ez dagoenez, makroornogabe gutxiago dabil eta, horren ondorioz, arrain, hegazti urtar eta ugaztun erdi urtar gutxiago ere bai, hala nola desman piriniotarra eta bisoi europarra.

La velocidad del río se reduce y la lámina de agua va haciéndose cada vez menos profunda, lo que facilita el calentamiento. La falta de corrientes limita la presencia de macroinvertebrados y, consecuentemente, la de peces, aves acuáticas o mamíferos semiacuáticos como el desmán ibérico y el visón europeo.





3 Presatik beheiti, ibai azpian gero eta babesleku gutxiago dago.

El fondo del río de la parte posterior al azud va desnudándose de elementos de refugio.

Bidasoaren arroa Kontserbazio Bereziko Eremua da (KBE) Natura 2000 Sarearen baitan. Iragazkortasuna berreskuratzea du helburu.

La cuenca del Bidasoa está declarada Zona Especial de Conservación (ZEC) de la Red Natura 2000, y busca recuperar la conectividad.

Oztopoak, zatiketa, okupazioa...

Ibaia izaki biziduna da eta bere espazioa behar du; sistema natural bat da eta ura, sedimentuak eta mantenugaiak garraiatzen ditu kontinentetik itsasoraino. Ibai inguruko lurrak ere bere gorputz atalak dira, hau da, ibaia handitzen denean haietatik zabaltzen da. Ibaiak, izaki bizidun gisa, etengabe aldatzen du bere itxura.

Ibaiak, lehen eta orain, presio eta eragin aunitz pairatu du. Horien ondorioz, zuzenean edo zeharka, kalte egin diogu. Presak adibide garbia dira. Presa bat ibai-sarean paratzen badugu hainbat gauza aldatuko da; bertzeak bertze, ekosistema bera.

Mende honen hasieran, Bidasoa ibaiak eta ibai-adarrek ehun oztopo baino gehiago zituzten, gizakiak eraikiak. Haietariko aunitz gaindiezinak ziren uretan bizi ziren animaliendako.

Oztopoak historian zehar erabili dira errotarriak mugiarazteko eta zentral hidroelektrikoak elikatzeko. Gaur egun, ordea, aunitzek ez dute horrelako eginkizunik. Hondakin industrialak dira. Uraren, hareen eta harrien berezko isuria eragozten dute. Arrainek, gainera, ez dute ibaian naturaitasunez ibiltzerik.

Batetik, ur gutxiago dago, eta bertzetik, ur gehiago dago bildua, geldirik. Horrek guztiak ondorio nabarmena dauka: oxigeno gutxiago eta tenperatura handiagoa; hau da, bizi-kalitate kaxkarragoa. Eta ura naturaltasunez ez badabil ibaiaren dinamika ez da berbera izanen.

Obstáculos, fragmentación, ocupación...

El río es un ser vivo que necesita su propio espacio; es un sistema natural que transporta agua, sedimentos y nutrientes desde el continente hasta el mar. Las tierras de su entorno son también parte de su cuerpo, por donde se extiende cuando crece: porque, como ser vivo, es dinámico, se mueve y cambia continuamente.

Los ríos han sufrido y sufren presiones e impactos que, directa o indirectamente, los degradan, como por ejemplo la presencia de presas. La colocación de una presa en la red fluvial modifica varios aspectos de ella, entre ellos, el propio ecosistema.

A principios de este siglo el río Bidasoa y sus afluentes tenían más de cien obstáculos artificiales. Buena parte eran infranqueables para los habitantes de sus aguas.

Estos obstáculos se han utilizado para alimentar centrales hidroeléctricas o molinos durante años, pero actualmente muchos han dejado de cumplir con esta función y se han convertido en ruinas industriales que cortan el fluir natural del agua, de las arenas y de las piedras, y hacen que los peces no puedan circular con naturalidad por el río.

Menos agua y más embalsada supone menos oxígeno y mayor temperatura; es decir, menos calidad de vida. Y si el agua no corre con naturalidad, la dinámica del río no es la misma.

MIGRAZIOA ETA ESKALAK
MIGRACIÓN Y ESCALAS

Bidasoa igo zuten izokinak
Salmones que remontaron el Bidasoa



Izokin populazioa

Izokin populazioaren bilakaerak ederki adierazten du nola dauden Bidasoaren arroko urak.

Izokina suspertzeko ahalegina baldintzatu duten gauzen artean oztopoak gainditzeko zailtasun handia aipatu behar da. Izan ere, horren ondorioz, izokinak nekez heltzen dira erreketako errute lekurik egokienetara.

Bertze espezie batzuek ere pairatzen dute ibaian hainbertze oztopo izatea: lanproiek, amuarrainek, aingirek...

La población de salmones

La evolución de la población de salmón es el gran indicador del estado de las aguas en la cuenca del Bidasoa.

La recuperación del salmón atlántico ha estado condicionada, entre otras, por la gran dificultad de superar los obstáculos y llegar a los lugares de freza más adecuados, en los arroyos.

Hay otras especies que sufren igualmente la falta de continuidad en el río: lampreas, truchas, anguilas...

Irekibai: bultzada ederra oztopoak botatzeko politikari

XX. mendearen akaberatik aitzina, hala Nafarroako Gobernuak nola Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak, hainbat lani ekin diote presa txikietan nahiz handietan, ibaia iragazkortzeko eta arrainen migrazioa errazten saiatzeko. Hasiera batean arrainendako eskalak paratu ziren. Eskalei esker, arrainei oztopo gaindiezina pasatzeko aukera ematen zaie, baina ez da oso egokia arrainak eta bertze espezie batzuk askatasunez mugi daitezen. Izan ere, arrainek are ahalegin handiagoa egin behar izaten dute. Leher eginik iristen dira eta aunitzetan baita zaurituak ere, jauzi egitean porlanaren kontra jo eta hartzen dituzten kolpeen ondorioz.

XXI. mendean presa zaharkituak botatzeko lanak hasi ziren Kantauriko arroan. Guztira la hogeita hamar izan dira. 2006tik 2009ra, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa aritu zen presak botatzen eta 2010etik 2018ra, berriz, Nafarroako Gobernua, IREKIBAI eta gisako proiektuen bitartez.

Irekibai: un impulso a la política de demolición de obstáculos

A partir de finales del siglo XX, tanto el Gobierno de Navarra como la Confederación Hidrográfica del Cantábrico promovieron actuaciones en los azudes y presas para permeabilizar el río y tratar de facilitar la migración de los peces. Con las primeras intervenciones se colocaron escalas para peces. Las escalas posibilitan que un obstáculo infranqueable deje de serlo, pero su eficacia para la libre migración de peces y otras especies es limitada; exige un esfuerzo añadido a los peces, llegando agotados y en muchas ocasiones heridos por los golpes contra el cemento en los saltos.

Entrado el siglo XXI se inició la demolición de presas obsoletas en la cuenca Cantábrica. Han sido casi treinta en total. La Confederación Hidrográfica del Cantábrico (CHC) se encargó de los derribos entre 2006 y 2009, y el Gobierno de Navarra ha seguido la labor entre 2010 y 2018 apoyándose en proyectos como IREKIBAI.

MIGRATZAILE BATEN LEKUKOTASUNA (I)
TESTIMONIO DE UN MIGRANTE (I)

"Kaixo,

Bidasoko Izokina naiz.

Kontatu nahi dizuet nola egiten dudan bidaia gure ibaian barna; horrela, une batez, nire lekuan paratuko zarete. Horretarako, argi izan behar dugu gure Bidasoa, bertze edozein ibai bezala, ur bide soil bat baino aunitzez ere gehiago badela.

Izan ere, ibaiaren gorputz barnean, arrainok, hegaztiak eta narrastiak bizi eta mugitzen gara. Ezin ditugu ornogabeak ahantzi. Animalia txiki horiek ugarienak dira eta materia organikoa garbitzen dute. Gainera, gure oinarrizko elikagaia dira.

Gizon-emakumeek ibaiaren lurraldea hartu duzue zuentzat, eraikuntza aunitz eraikita. Horren ondorioz, ibaiaren gorputzean zauriak eragin dituzue zuen beharrak asetzeko. Ibaiarentzat presak zuentzat zainetako odolbilduak bezalakoak dira. Denboraldi batez, presaren eginkizunak mesede egiten dizue, ulergarria da, baina erabiltzeari uzten diozuenean.... han bertan geldítzen dira.

Bai, aski ongi dakit zenbait tokitan presa jolasleku dela eta herriko jendeak maite duela; baina, inoiz pentsatu al duzue horrek duen kostua?

Ibaiak, halaber, ura, sedimentuak, mantenugaiak eta bertze izaki bizidun batzuk garraiatzen ditu. Presen ondorioz hori guztia ez da naturalki mugitzen. Presatik goiti uraren garraio-abiadura moteltzen da eta sedimentuak metatzen dira; horren ondorioz, ibai zola gero eta altuagoa da.

Presak erregimen artifiziala sortzen du emarietan eta, beraz, inguruetan uholdea izateko arrisku handiagoa dago. Bai ugaztun erdi urtarrentzat, bai gu arrainontzat, oztopoa gaindiezina bada, gure ugaltzeko gaitasuna txikiagoa da eta isolatzen gaitu".

"Hola,

soy el Salmón del Bidasoa.

Quiero contaros cómo hago el viaje por nuestro río, para que, por un momento, os pongáis en mi lugar. Para eso, hemos de tener claro que nuestro Bidasoa, como cualquier otro río, es mucho más que un simple camino para el agua.

Dentro de su cuerpo vivimos y nos movemos los peces, los mamíferos, las aves, los reptiles, sin olvidarnos de los más numerosos, los invertebrados, esos pequeños animales que ejercen la labor de limpiadores de la materia orgánica y que son nuestro alimento base.

A medida que las personas, con vuestras construcciones, habéis ocupado el territorio del río, habéis generado heridas en su cuerpo para satisfacer vuestras necesidades. Las presas son para el río como coágulos en vuestro torrente sanguíneo. Durante un tiempo las presas tienen un cometido que os beneficia, es entendible, pero cuando dejáis de darles uso... ahí se quedan.

Sí, ya sé que en ciertos lugares la presa es lugar de encuentro, referente local; pero, ¿os habéis parado a pensar a costa de qué?

El río también transporta agua, sedimentos, nutrientes y otros seres vivos. Las presas no permiten que todo ello circule con normalidad. Se reduce la velocidad de acarreo aguas arriba del azud y los sedimentos se van acumulando, haciendo que el lecho sea cada vez más alto.

La presa genera un régimen artificial de caudales que aumenta las posibilidades de inundación en su entorno. Los mamíferos semiacuáticos y nosotros, los peces, nos enfrentamos a un corte insalvable que reduce nuestra capacidad de recuperación y nos aísla."

"Hara gure aurpegia ibaian goiti egin nahi eta presarekin topo egiten dugunean."

"Esta es la cara que se nos queda cuando pretendemos remontar el río y nos encontramos con una presa."

MIGRATZAILE BATEN LEKUKOTASUNA (II)
TESTIMONIO DE UN MIGRANTE (II)



Izokinok ibaietara itzultzen gara ugaltzeko itsasoan barna bidaia luze bezain arriskutsua egin eta gero. Bidasoa Ibaian sartzen gara Kantauri itsasotik.

Los salmones, después de un largo y peligroso viaje por el mar, regresamos a los ríos para reproducirnos. Para eso entramos al río Bidasoa desde el mar Cantábrico.

Hurrengo belaunaldia sabel barneko arrautzetan daramagula, gure senak uretan gorantz bulkatzen gaitu, arrautzak erruteko leku egokienen bila.

Con la tripa llena de huevas con la siguiente generación, nuestro instinto nos impulsa aguas arriba, a buscar los lugares más adecuados para hacer la puesta.

Leku horiek ibaietako goialdean egoten dira, errekastoetan, tarte horietako harri-koskorrak egokiak baitira habiak egiteko eta arrautzak babesteko. Gainera, ura freskoagoa da eta oxigenatuagoa dago.

Esos lugares suelen estar en las partes altas de los ríos, en los riachuelos, allí donde los guijarros nos ofrecen más garantías para hacer los nidos y proteger los huevos. Zonas donde el agua es más fresca, más oxigenada.

Sekulako ahalegina egin behar izaten dugu oztopoak gainditzeko, ibaian gora igo eta ugaltzeko. Buru-belarri aritzen gara bide nekoso horretan, deus ere jan gabe, denborarik ez galtzeko.

Con un gran gasto de energía tratamos de superar los obstáculos, remontar el río y reproducirnos. Nos dedicamos con tal intensidad a ello que ni siquiera nos alimentamos durante el viaje para no perder tiempo ni energía.

Ibaian goiti egiten dugu, urlasterraren kontra, ur-jauzi txikiak gaindituz... harik eta horma batek bidea eragozten digun arte.

Remontamos, contra corriente, sorteando los pequeños saltos de agua... Hasta que una pared nos impide seguir.

Ezin aitzina egin. Hortaz, ugalduko bagara, bertze leku batzuk topatu behar ditugu. Ez gara lekurik onenetan ugalduko, hau da, hurrengo belaunaldiari gehien komeniko litzaizkiokeen lekuetan.

No podemos seguir. Para reproducirnos hemos de encontrar otros lugares. Ya no será en los mejores sitios, donde más le convendría a la siguiente generación.

Pertsonek aski dakizue eta gaitasuna baduzue arazo latz hori konpontzeko.

Las personas tenéis ya el conocimiento y la capacidad necesaria para tratar de revertir, en la medida de lo posible, este problema.



Ahal delarik, oztopoak kendu eta ibaiertzak lehengoratu behar dira, horixe baita guri egin diezagukezuen mesederik onena. Eman bidea ibaiari, urak eta izokinok oztoporik izan ez dezagun.

Eliminar los obstáculos y restaurar las riberas allí donde sea posible es el mejor favor que nos podéis hacer. Dad vía libre al río para QUE CORRA EL AGUA, *y nosotros con ella.*

EKINTZAK ETA PARTAIDETZA
ACCIONES Y PARTICIPACIÓN

Ibaiak lehengoratzeko lanak

- Lehengoratze lanak **KBE hauetan: 'Bidasoa Ibaia', 'Baztan Ibaia eta Artesiagako Erreka', 'Bertizko Jaurerria', 'Artikutza' eta 'Belate'.**
- **Endarlatsako presa** eraitsi da.
- **Berako Zentral zaharreko presa** eraitsi da.
- **Txarutako errekan** zeharkako oztopoa ezabatu da.
- **Iturengo arrain-haztegi zaharreko presa** eraitsi da.
- **Bisoi amerikarra** kontrolatzeko lanak.
- **Ibaiertzak** lehengoratzeko lanak.
- GIPUZKOA: kontserbazio lanak **'Leitzaran Ibaia' KBEn** (Inturia eta Ollokiko presak eraitsi dira...)

Restauración de ríos

- Restauración en las **ZECs 'Río Bidasoa', 'Río Baztan y Regata Artesiaga', 'Señorío de Bertiz', ZEC 'Artikutza' y 'Belate'.**
- Demolición de la **Presa de Endarlatsa.**
- Demolición de la **Presa de la antigua Central de Bera.**
- Eliminación de barrera transversal en la **regata de Txaruta.**
- Demolición de la presa de la antigua **piscifactoría de Ituren.**
- Control de **visón Americano.**
- Restauración de **riberas.**
- GIPUZKOA: acciones de conservación en la **ZEC 'Leitzaran Ibaia / Río Leitzaran'** (demolición de la presa de Inturia, Oioki...)

Parte hartzea eta sentsibilizazioa

Jendeak parte hartzeko gune bat sortu da Irekibai proiektuko ibai-espazioa nola hobetu eztabaidatzeko. Emaitzak lagungarriak izan dira erabakiak hartzeko.

Udalekin eta bizilagunekin solas egiten dugu proiektuaren ekintzak aintzat har daitezen eta haien jarraipena egin dadin; ingurumen boluntarioen bidez ibaiak zaindu eta hobetzeko lanak kudea dadin, eta abar.

Participación y sensibilización

Se crea un espacio de participación para deliberar sobre las actuaciones de mejora del espacio fluvial del proyecto Irekibai con la voluntad de que los resultados sean un elemento de apoyo para la toma de decisiones.

Se implica a los ayuntamientos y a las vecinas y vecinos en la consideración y seguimiento de las actuaciones del proyecto; también en la conservación y mejora de los ríos a través del voluntariado ambiental, fomento de la custodia fluvial, etc.

Endarlatsako Presa.
Presa de Endarlatsa.

Endarlatsa presarik gabe.
Endarlatsa sin presa.

Ibaiertzak bioingenialitzaren bidez lehengoratzea. Arraioz.
Restauración de riberas mediante bioingeniería. Arraioz.

Desman piriniotarra.
Desmán ibérico.

Ingurumen boluntarioak: ibaiertzak garbitzea. Leitza.
Voluntariado ambiental: Limpieza de riberas. Leitza.

Gehiago dakigu...

... lehengoratu ditugun tarteetako ibai-ibilguetan gertatzen diren aldaketei buruz, bai geomorfologian, bai sedimentuetan (higadura, garraio eta sedimentazio prozesuak).

... izokinaren migrazioari buruz; zer arazo dituen, izokinaren biziraupen-tasak, arrautzak erruteko leku garrantzitsuak eta ugalketan duen arrakasta edo telemetria bidezko jarraipena eginez.

... desman piriniotarraren eta haren habitataren jarraipena eginez.

... izokinaz, kolakaz, lanproiaz: proiektuko ekintzek populazioetan nola eragin duten aztertu dugu.

... larrainak pasatzean zenbatzeko gailuen funtzionamenduaz.

... ekimenen eremuetako habitaten jarraipena eginez.

Mejorar el conocimiento sobre...

... los cambios geomorfológicos y de sedimentos en el cauce del río (procesos de erosión, transporte y sedimentación) de los tramos restaurados.

... la migración del salmón, sobre los problemas que se encuentra, sus tasas de supervivencia, zonas importantes para la freza y su éxito reproductor mediante el seguimiento por telemetría.

... el seguimiento del desmán ibérico y su hábitat.

... el salmón atlántico, sábalo, lamprea marina: evaluación de la eficacia de las acciones del proyecto en sus poblaciónes y características.

... la evaluación del funcionamiento de dispositivos de paso de peces.

... seguimiento de hábitats en las zonas de actuación.

EMAITZAK
RESULTADOS

Egun, izokinik bizkorrenak Oharrizeraino iristen dira, Elizondotik 5 kilometrora
Hoy, los salmones más fuertes llegan hasta Oharriz, a 5 kilómetros de Elizondo

Oztopo gutxiago dago hainbat presa eraitsi dugulako; horren ondorioz, ibaiaren jario naturala handitu da.

La reducción de obstáculos mediante la demolición de presas ha aumentado la conectividad.



Espezie inbaditzaileen presioa murriztu

Bison amerikarraren populazioa kontrolatzeko lanei ekin zaie. Hori lagungarria zaio bisoi europarrari, espezie inbaditzaile horren habitat berean bizi baita.

Platanoak, banbuak, fallopia japoniarra eta sasiakaziak ezabatzeko lanak.

Reducción de la presión de las especies invasoras

Se ha incidido en el control de la población del visón americano, ayudando a que el visón europeo no tenga que competir por el mismo hábitat que esta especie invasora.

Eliminación de ejemplares de plátano, bambú, fallopia japónica y pseudoacacia.

Herritarren parte hartzea

Ibaiaren inguruan bizi den jende gehien-gehiena LIFE IREKIBAIko proposamenak bere egin eta onartu ditu. Bereziki aipatu behar da oztopoak eraistea onartu dela, hagitz afera eztabaidagarria izan baita duela urte gutxi arte.

Lan-ildo berria landu da Nafarroako Gobernuaren eta tokiko Arrantza Elkarteen artean, Ibaia zaintzeko ekintzak sustatu eta bultzatzeko. "Izan zaitez Bidasoko izokinaren babesle" ekimen pilotua nabarmentzekoa da.

Proiektua, gaur egun ere, lagungarria da parte hartzearen kultura bultzatzeko eta Ibaiaz, uraz nahiz Uraren Esparru Zuzentarauaren printzipio eta helburuez dugun ezagutza nabarmen hobetzeko. Gainera, lagungarria da habitaten eta biodibertsitatearen kontserbazio-egoera hobetzeko.

Participación ciudadana

La gran mayoría de la población ribereña ha asumido y aceptado las propuestas del LIFE IREKIBAI. Reseña especial merece la aceptación de la demolición de obstáculos, cuestión muy controvertida hasta hace pocos años.

Se ha logrado la implementación de una nueva línea de trabajo para promover y apoyar actuaciones de custodia fluvial entre el Gobierno de Navarra y Sociedades de Pesca locales, destacando el programa piloto "Apadrina un salmón del Bidasoa".

El proyecto sigue contribuyendo a generar cultura participativa y a mejorar muy notablemente el conocimiento del río, del agua y de los principios y objetivos de la Directiva Marco del Agua. Además, ayuda a avanzar en el estado de conservación de los hábitats y de la biodiversidad.

Izan zaitez izokin babesle

Arrantzalea, nahi izanez gero, harrapatzen dituen izokinen babesle izan daiteke, arrainei bigarren aukera emanda, hau da, Oronoz Mugairiko arrain-haztegira eramanda, ale ugaltzaileak izan daitezen edo, bertzenaz, izokina markatu eta berriz ere ibaira itzuliz. Arrantzaleek, gainera, ibaian askatu dituzten izokinen jarraipena egin dezakete.

Apadrina un salmón

Los pescadores que lo deseen pueden "apadrinar" los salmones capturados dándoles una segunda oportunidad al trasladarlos a la piscifactoría de Oronoz Mugairi para que ejerzan de procreadores y o devolviéndolos marcados al río. Los pescadores pueden hacer seguimiento posterior de los salmones liberados.

Ibaiertzak lehengoratzea
Restauración de riberas

Bidasoa arroko faunari eta landarediari buruzko liburuak.

Libros sobre fauna y vegetación de la cuenca del Bidasoa.

LIFE IREKIBAI

Nafarroako Foru Komunitateak eta Euskal Autonomia Erkidegoak ekintza-ildo nagusia onartu dute; hots, ibaietako oztopo artifizialetan esku-hartzea ibaien berezko funtzionamendua eragozten dutelako (presak, presa txikiak, hodiak eta hainbat eraikuntza) eta ibaietan bizi diren espezie batzuen bizitza baldintzatzen dutelako (arrainak eta ugaztun erdi urtarrak).

Lankidetza-proiektu guztiak LIFE IREKIBAIn elkartu dira. Jardun eremua Leitzaran eta Bidasoa ibaiak dira.

La Comunidad Foral de Navarra y la Comunidad Autónoma Vasca han asumido como principal línea de actuación intervenir en las barreras artificiales que impiden el funcionamiento natural de los ríos (presas, azudes, tuberías y diversas construcciones), y condicionan la continuidad de algunas de las especies que los habitan (peces y mamíferos semiacuáticos).

Los distintos proyectos de cooperación han culminado en LIFE IREKIBAI.

IREKIBAIren helburu orokorra

Natura 2000 Sareko naturguneetan Batasunaren interesa duten habitat eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzea, betiere Bidasoa eta Leitzaran ibaien arroetan kokaturik dauden haietan, hain zuzen.

Objetivo general de IREKIBAI

Mejorar el estado de conservación de los hábitats y especies fluviales de interés comunitario de los espacios Natura 2000 situados en las cuencas del Bidasoa y del Leitzaran.

IREKIBAIren berariazko helburuak

- Ibaiak lehengoratzea presak eta presa txikiak ezabatuz edo arrainek gainditzeko moduko pasabideak sortuz.
- Habitat hondatuak lehengoratzeko lanak egitea, eraginak zuzenduz. Horretarako, kosturik txikienean onurarik handiena dakarten lanak lehenetsiko dira.
- Ibaiak kudeatu eta lehengoratzeari buruzko ezagutza hobetzea.
- Emaitzak hedatzea eta gizartea sentsibilizatzea gure ibaiek ingurumenari begira ematen dizkiguten balioetan eta zerbitzuetan.
- Espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzea, dibertsitate autoktonoa murrizten baitute.

LIFE IREKIBAI proiektuaren jardun-eremua.

Ámbito de actuación del proyecto LIFE IREKIBAI.

Objetivos específicos de IREKIBAI

- Restaurar los ríos eliminando presas y azudes o creando pasos para que los peces puedan superarlos.
- Realizar trabajos de restauración de hábitats degradados corrigiendo los impactos y priorizando la actuación en los cursos fluviales en los que se evidencie un mayor beneficio a un menor coste.
- Mejorar el conocimiento sobre la gestión y restauración de ríos.
- Difundir los resultados y sensibilizar a la sociedad sobre los valores y los servicios ambientales que proporcionan nuestros ríos.
- Controlar las especies exóticas invasoras que merman la diversidad autóctona.

www.irekibai.eu

LIFE IREKIBAI proiektuko bazkideak
Socios del proyecto **LIFE IREKIBAI**

Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, S.A. / Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa

ura — ur agentzia / agencia vasca del agua

hazi — LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA / DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO

LIFE programa Europar Batasuneko tresna bat da, ingurumenaren kontserbazioa eta babesa finantzatze aldera.

El programa **LIFE** es un instrumento de la Unión Europea para financiar la conservación y la protección del medio ambiente.

Natura 2000 sare ekologiko bat da eta helburu du Europako espezierik eta habitatik mehatxatuenen biziraupena epe luzera bermatzea.

Natura 2000 es una red ecológica cuyo objetivo es garantizar la supervivencia a largo plazo de las especies y los hábitats más amenazados de Europa.

Irekibai

LIFE IREKIBAI

Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza.

Ríos abiertos: mejorando la conectividad y los hábitats en los ríos compartidos por Navarra y Gipuzkoa.

Argitaratzailea / Edita: GAN-NIK • Koordinatzailea / Coordina: Montse Gómez-Hak • Ipuldunak / Título: Carlos Pérez Díaz, J. Kiltz / Argazki-egileak / Fotografías: José Aldaz, Cristian Fischer, Jorge González Esteban, Joan Larumbe, Ricardo Martín López, J.M. Pérez de Ana, Julián Toquero, Ole Toquero, Alfredo Sanzón. Diseinua, testuak eta kartografiak / Diseño, textos e ilustraciones: Latelit Multimedia